Ekonomia frankoaren izaera eta iraultza feudala delakoa (VI-XI mendeak)

Arras eztabaidatuak izan dira sistema feudalaren sorreraren data eta gorabeherak. Batzuek aldaketa hori erresurna frankoen gizartean sumatzen badute ere, beste batzuentzat, geroz eta gehiago, K.o. 500-900 arteko estatu "barbaroen" izaerak zer ikusi handiagoa du antzinako sistema esklabistekin, 1000 urtetik aurrera Europan sendotuko den sistema feudalarekin baino. Lerro hauetan, Guy Bois historialari frantziarra aldakuntza horren gorabeherak azaltzen saiatzen da.

1 . Gizarte frankoa gizarte esklabista izan zen, eta ikuspuntu honetatik antzinako gizarteen artean sartu beharra dago. Esklabotzatik maila juridiko edo sozial berri batera (morrontzara) igarotzearen tesiaren aurkakoa da proposamen hau; hala ere, onartzen dugu, zalantzarik gabe, «esklabotza hobetu» bat dela (formula Michel Roucherena da) eta esklaboa batik bat bere familiarekin lur sail batean kokatutako ekoizpen txikiko esklaboa dela; alderdi honek garrantzi berezia du, esklaboari gizarte-igoera bultzatuko lukeen nolabaiteko autonomia eskainiz, epe aldakorrean esklabotza beraren désagerpena ekarriko duelako.

Hala ere, proposamenaren alde nagusiari ñabardurak egin behar zaizkio. Esklabotzaren iraupen sendoena «jaurerri txikiaren» baitan gertatzen da; egitura han oinarrizkoa izan bide zen, «jaurerri handia» baino nagusiagoa giza-baliabideei zegokienez. Zergatik irauten du han beste gune batzuetan baino hobe? Sinpleki esanda, haien jabeek ez dutelako gizaki askeei nagusitzeko eta berauei zerbitzuak eskatzeko aginpide politiko nahikorik (konde edo apezpiku batek ez bezala). Bere jabegokoak diren familien gaineko aginpide pribatuaz balia daitezke soilik; amaiera arte erabiliko dute, iraultza feudal beraren garaia arte. 1aurerri txikian inmobilismoaren indar nagusiak biltzen dira.

Aristokrazia zibil edo erlijioso garaiaren jaurerri handietan, egoera ezberdina da. Esklaboak eta kolonoak elkarrekin dabiltza; berauen *status*ak gerturatzen doaz eta batzuetan nahastera heltzen dira; ezkontza mistoak gertatzen dira. Jaurerri handiak nekazarien egoera berriaren arragoa bihurtzen dira, «gizarte-berregituraketaren» ikur. Oroit gaitezen, beraz, prozesuaren izaera kontraesankorraz (...).

2. Antzinako gizarteak bezala, gizarte frankoak hiru zutabe ditu. Marren aurkako bi klaseen irudia ez da egokia: gizarte-ikuskizuneko aktore nagusiak aristokrazia -zeinaren barne-hierarkizazioa, gainera, oso sakona baiten-, esklaboak eta nekazari askeen komunitateak ditugu. Gizarte-klase menderatzaileak lotura handiagoak ditu antzinako aristokraziarekin, etorkizuneko aristokrazia

feudalarekin baino, azken honen ezaugarri batzuk (militarizazioa eta klerikalizazioa) jadanik sendotzen ari badira ere. Aristokraziaren kokapena esklabo-jabetzaren ondorio da, beti ere, eta botereak eskaintzen dituen etekinak ditu helburu, antzina gertatzen zen bezala. Baina, era honetan, estatu aparatuaren degradazio erremedio gabekoak kondenatutako klase bilakatzen da, hortik lortzen baitzituen, antzina, bere pribilejioen eta baliabideen zatirik handienak. Ezingo du galdutako eremua berreskuratu. Baliabide publikoen gutxipenak izaera akumulatiboa du; nekazarien komunitate bizienak, jendetsuenak eta aberatsenak kontrolatzeko bide gutxiago izango dutela esan nahi du honek. Konkistak bide mugatu bat baino ez ziren izan. Karolingiar berrikuntza azken ahalegina izan zen gertaeren segida alderantzikatzeko, aginte zentrala berreraikitzeko eta bere banaketa funtzioak berrezartzeko (konkistak, Elizaren ondasunen konfiskazioak eta hamarrenaren ezarpena zirela medio). Alferrikako ahalegina, Estatuaren hondoratzea bultzatu eta talde menderatzailearen zatiketaz bukatu zelako: hor ditugu desklasatzeak mehatxatutako talde honetako beheko elementuen matxinada, eta aristokrazia garaiaren zatiketa, ordena politiko tradizionalaren aldekoen eta ordena berriaren bultzatzaileen artean. Iraultza feudala egoera honetatik sortu zen: eragina nekazalgo osoaren gain (ez soilik morroien gain) zabalduko duen aristokrazia sortu-berriaren ezarpena ekarriko du, antzinako botere publikoa lurralde-esparru mugatuago batean biltzearen ondorioz. Ban- edo jurisdikzio-errentak eta maiztertzan lagatako lurren errentak izango dira, orduz geroztik, euren oinarria. Ikuspuntu honetatik, ezbairik gabe, gizarte-klase berri baten aurrean gaude, aurrekoaren kualitatiboki ezberdina den aristokrazia bat, nahiz eta bere partaideen gehiengoa antzinako klase horretatik atera den.

Nekazalgo libreari dagokionez, klase mutu guztiak bezala, bere isiltasunaren biktima izan da. Hala eta guztiz ere, eta iturrien iluntasuna gora-behera, iragarri dezakegu bere kopuruaren, kohesioaren, eraginkortasun teknikoaren eta baita, erlijiosoa den forma baten pean, bere gizarte-kontzientziaren sendotzea ere. Arrazoi horiexegatik, antzinako ordena desorekatzen asko lagundu zuen. Baina, bizitzen ari zen hazkundeak berak ahulduta eta tokiko boteretsuen indarkeriak mehatxatuta, nekazalgo honek ere ordena berriaren ezarpenean lagundu zuen. Hortaz, gizarte-klase hau desagertuko da nekazari menpeko edo maizterren klase nahikoa homogeneoan bat egiteko.

Laburbilduz, milagarren urtearen aurretik eta ostean argi desberdintzen diren bi klase-dispositibo ikusten ditugu, bat antzinako tankerakoa, beste bat tankera feudalekoa.

3. Hiri / landa arteko elkartruke eta harremanari dagokionez, kontuan hartu behar dugu bigarren alderdiak antzinako gizarteko ezaugarri berberak gorde zituela. Alde bakarreko erlazioa da, menderakuntza eta ustiaketakoa, baina (hauxe da berrikuntza) etengabeko ahultze prozesu batean murgildua. Fenomeno honek, berriz, hiriaren gainbehera, gizartearen erruralizazioa eta landaren garapena bultzatzen ditu. Sistema feudala edo feudalismoa erruralizazioarekin lotzea zentzugabekeria da: erruralizazioaren benetako kausa antzinako gizartearen disfuntzioetan datza. Alderantziz, iraultza feudalean sortutako lekuan-lekuko botere berriek tokiko elkartrukeen garapena bultzatzen dute eta elkarrekikotasun harremanetan oinarrituriko mota berriko hiri / landa bikotea

ezartzen dute, hiriaren funtzio menderatzailea desagertzen ez bada ere. Bere lehenengo urratsetatik, sistema feudalak merkataritza-berpizkundea ekarriko du; oinarrian merkataritzadun sistema bat da, antzinako gizartea baino gehiago (itxura engainagarriak gora-behera); laster, merkatari klase baten jaiotza bermatuko du, ordena feudalean guztiz errotua eta ez, ordu arte bezala, baztertua. Azkenik, gizartearen oinarri berean merkatuaren mekanismoa sartzean, sistema feudalak ekonomiari autonomia berri bat eman zion, eta zanpatu egiten zuen gerruntze politikoa lasaitu zuen.

4. Nekazaritza-hazkundea gizarte frankoaren funtsezko fenomenoa izan zen. Hiriaren eta fiskoaren menderakuntzaren lasaitzeak onura ekarri zion, ez-kontza-zelularen sendotze eta herri-elkartasunen laguntza izan zuen, eta neka-zari-ustiategiko esparruko, eta are gehiago, garapen teknikoan erabakiorra izan zen jaurerri txikiko esparruko ekoizpen txikiarekin batera etorri zen. Hazkundearen benetakotasuna zalantzaezina denez, honen gertakari ugarietan pausatu behar dugu. Nekazaritza garapenak karolingiar munduaren kokapen-egituren ahulezia azaleratu zuen. Gizarte-ingurumena aldarazteko balio izan zuen, morrontza-harremana lotura obsoletoa bihurtuz eta nekazalgoaren pisu espezifikoa berrindartuz. Hala ere, kontuan izan behar dugu efektu kontraesankorren agerpena: igoera-faktore nekazarientzat, nekazaritza-hazkundea, bere garapen une batetik aurrera, eurentzako mehatxu larri bihurtzen da (lurren atomizazioa, gizakien pobretzea). Azkenik, elkartrukearen berpizkunderako beharrezko baldintzak (landa-barneko formapean, lehenik eta behin), eta lanaren gizarte-banaketa sakonago bat eratu zituen. Ez da kasualitatea iraultza feudala hazkunde testuinguru orokor baten erdian gertatzea (antzeko zenbat adibide dago!). Testuinguru horrek gizarte-arkaismoak azaleratzen ditu, batzuei desklasatzeak eta desorekak ekartzen dizkie, irrikak eta gutizia, berriz, beste batzuei; desorekatzailea da berez. (...)

5. Azken proposamena: frankoen garaia hausturan bukatzen da. Ez zen, tran-tsizio nabariezinez, egoera batetik besterako bilakaera soila gertatu. Asaldura batek jo zituen gizarte-bizitzaren alderdi guztiak: botereen banaketa berria, us-tiakuntza harreman berriak (jaurgoa), mekanismo ekonomiko berriak (merka-tuaren agerpena), ideologia sozial eta politiko berria. Iraultza hitzak esanahirik badu, non da hemen baino egokiago?

Guy Bois, *Milagarren urteko aldakuntza*, 1989.[1]

[1] [Testu honen iturria: ZZEE (1998): *Historia testu bidez*, Arabako Foru Aldundia - EHU, Gasteiz. Itzulpenaren arduradun den Joseba Zuazoren baimenaz].